

2021eko OTSAILAREN 17ko OSOKO BILKURAKO AKTA.

Tokia: Berako Herriko Etxea.
Eguna: 2021-02-17.
Hasiera ordua: 19:35.
Bilkura mota: ohikoa, 1. deia.

BERTARATUAK:

EH BILDU

M. Aranzazu Zubieta Ochoteco

Jose Esteban Aguirre Zubieta

Estibaliz Pinacho Olaciregui

Josu Iratzoki Agirre

Julen Errandonea Martin

Maialen Chantre Irazoki

HERRIRAKO

Jose Antonio Oyarzabal Iribas

Nahuel Maximiliano Ibarburi Lompre

Raquel Quiroga Tapia

EZ EGOTE JUSTIFIKATUAK:

German Castillo Lazcanotegui

ALKATEA (Bilkurako buru):

Aitor Elexpuru Egaña

IDAZKARIA: Miguel Jose Belarra Tellechea, ekintzaren akta jasotzen du.

EZTABAIDATUTAKO GAIAK (behar bezala egindako deialdiaren Gai Zerrendan sartu zirenak):

1. AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONARPENA.

Alkateak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko bilkurako aktari (2021/01/20). Inork ez du azalpenik egin eta **aho batez** onartzen da akta.

2. HIRI-JARDUKETARAKO PLAN BEREZIA 4. POLIGONOKO 168., 170., 208., 233., 236., 248., ETA 249. PARTZELETAN ETA 17., 189. ETA 243. PARTZELEN ZATI BATEAN (IBARDIN). BEHIN BETIKO ONESPENA.

Ikusirik:

- Hiri-jarduketarako Plan Berezia, 2 eraikin (Venta Biok/Alzuguren eta Venta Miguel) batean bihurtzeko 4. poligonoko 168., 170., 208., 233., 236., 248., eta 249. partzelen eta 17., 189. eta 243. partzelen zati baten barrutian (Ibardin). BOSTARGI S.L. da sustatzailea eta XXX, XXX eta XXX arkitektoek egin dute agiria.

- Nasuvinsako arkitektoak, Udaleko aholkulariak, 2020ko urriaren 6an egindako

txosten teknikoa.

- Udal idazkariak 2020ko urriaren 9an egindako txosten juridikoa.

Kontuan izanda:

- Agiria hasiera batean onartu zela urriaren 19ko 209/2020 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez. Ebazpen horrek betebeharrak ezartzen ditu: Nasuvinsako arkitektoaren txosten teknikoaren 8.2 puntuko ohar guztiak betetzen dituen dokumentu batekina aurkeztea, behin betiko onarpena eman aurretik.

- Espedientea jendaurrean jarri zela, iragarkiak argitaratuz NAOn, prentsan eta Iragarki Oholean.

- Espedientea jendaurrean egon zen epealdian, XXX jaunak eta ELIZ-ALDEA S.L. eta VENTA PEIO S.L. merkataritza-enpresek alegazioak aurkeztu zituztela hainbat alderdiri buruz: baliozko ingurumen-ebaluaziorik eta herritarren parte-hartze eraginkorrik eza; Ibardinen esku-hartze global baten beharra, ez partikularra edo puntuala; ez dago eraikinik; izapidetzen ari den hirigintza-tresnaren izaera argitzeko beharra; bideragarritasunari eta iraunkortasun ekonomikoari buruzko benetako memoriarik ez izatea; Merkataritza Erakarpenean eta Antolatze Planik ez egotea; HJPBa onartzeak esan nahi du sustatzailea salbuetsi egingo dela indarrean dagoen araudia betetzetik; kontuan hartu ez diren eraginak Ibardingo mugikortasunean; proiektatutako plaza publikoan baimenduko diren erabilerak; eraikin berriaren lerrokatzeak, altuerarik eta bolumenik eza; urbanizazioa eta urbanizazio-kota; gainerako jabeekiko konparaziozko bidegabekeria.

- Alegazioen berri eman zitzaizkion sustatzaileari, bere eskubidea defendatzeko egokitzen jotzen zuena jakinaraz zezan, 2021eko urtarrilaren 12an aurkeztutako idazkian egin zuen bezala (Sarrera Erregistroko 45. zenbakia), alegazioak ezestea proposatuz.

- Nafarroako Gobernuaren Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiko Biodibertsitate Zerbitzuak txostena egin zuela 2020ko azaroaren 30ean. Bertan adierazten denez, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 5. eta 6. artikuluetan ezarritakoaren arabera, aurkeztutako HJPBa ez dago sartuta ingurumen-ebaluazio estrategikoaren aplikazio-eremuan.

- Sustatzaileak behin betiko onartzeko eskatu zen dokumentu batekina aurkeztu zuela (2021/47 zk., Udaleko Sarrera Erregistrokoa).

- Nasuvinsako arkitektoak, Udalaren aholkulariak, aldeko txostena eman zuela 2021eko otsailaren 12an.

- Marcos Erro Martinez abokatuak 2021eko otsailaren 12an egindako txosten juridikoa aurkeztutako alegazio guztiak ezestea proposatzen duela, bertan adierazten diren oinarri juridikoengatik, zeinak transkribatutak jo eta onartzen baitira.

Azaldutakoa oinarri hartuta, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu batekina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 72. artikuluekin bat etorriz, eta aipatutako txosten juridikoaren arrazoiak kontuan hartuta, zeinaren edukia erabaki honen arrazoiaren parte baita (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 88.6 artikulua),

aho batez ERABAKITZEN DA:

1. Aurkeztutako alegazioak osorik ezestea, aipatutako txosten juridikoan azaldutako arrazoiengatik.

2. Ibardinen dagoen 4. poligonoko 168., 170., 208., 233., 236., 248., eta 249. partzelen eta 17., 189. eta 243. partzelen zati baten barrutiko Hiri-jarduketarako Plan Berezia behin betiko onestea, honako baldintza hauekin:

- Sustatzaileak finkak erantsi/bereizteko baimena eskatu beharko du, Planak proposatutako partzelazioa egiteko.

- Sortutako espazio berria (plaza, berdegunea eta baita sestra azpiko espazioa ere) jabari publikokoa izango da, eta, beraz, bertan egiten diren obrak HJPBko sustatzaileak egin behar baditu ere, bai espazioaren konfigurazioak bai arkitekturaren diseinuak Udal zerbitzu teknikoen oniritzia izan beharko dute.

3. Behin betiko onespren hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

4. Erabaki hau jakinaraztea sustatzaileari eta espedienteari alegazioak aurkeztu zizkioten pertsoneri, aipatutako txosten tekniko eta juridikoaren kopiarekin batera.

5. Erabaki hau helaraztea, onartutako agiriarekin eta emandako txosten teknikoekin batera, Nafarroako Gobernuko Lurralde Antolamendu, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuari, gehienez ere 10 eguneko epean.

M. Aranzazu Zubieta bilerara sartu egin da.

3. 2021EKO AURREKONTUAREN EXEKUZIO OINARRIEN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA.

Ikusirik:

- 2021eko ekitaldirako aurrekontu orokorra indarrean dagoela 2021eko urtarrilaren 11ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean laburpena argitaratu zenez geroztik.

- Abenduaren 29ko 22/2020 Foru Legeak, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatzen duenak (2020ko abenduaren 31ko 304. zenbakidun Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen), hainbat aldaketa egin dituela, eta horiek indarrean dagoen aurrekontuaren exekuzio oinarrietan jaso behar direla.

- Aldaketa esanguratsuenek honako hauei eragiten dietela: aurrekontu-aldaketen izapidetzea arintzea; aparteko kredituen eta kreditu-gehigarrien finantzaketa eta betearazgarritasuna; kreditu-transferentzien betearazpena; sarrerengatiko kredituen sorrera indarrean jartzea; kreditu-gerakinak txertatzea.

Idazkariak ahozko txostena egin ondoren, eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202. artikuluan ezarritakoaren arabera,

aho batez ERABAKITZEN DA:

1. Hasierako onarpena ematea 2021eko ekitaldiko aurrekontuaren exekuzio oinarrien aldaketari, 22/2020 Foru Legeak onartutako aldaketak sartzeari xede.

2. Espedientea jendaurrean jartzea hamabost egun balioduneko epean, aldez aurretik Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udal iragarki-oholean iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak egin ditzan.

3. Ohartaraztea jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik ez balego, behin betiko onetsizat joko dela aldaketa eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dela.

4. 2021EKO PLANTILLA ORGANIKOAREN BEHIN BETIKO ONARPENAREN AURKAKO BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA.

Ikusirik:

- XXXk jarritako berraztertze errekurtsoa 2021eko plantilla organikoaren behin betiko onespeneraren aurka (2021eko urtarrilaren 11ko 5. zenbakiko N.A.O.n argitaratu zena).

- Errekurtsogileak %19,35eko lanpostu-osagarria jasotzeko eskubidea eskatu duela.

- Joseba Compains Silva letratuak 2021eko otsailaren 12an emandako txosten juridikoak errekurtsoa ezestea proposatzen duela, errekurritutako erabakia zuzenbidearen arabera delako, funtsean, errekurritutako plantilla organikoan finkatutako lanpostu-osagarria txosten tekniko batean oinarritzen delako; txosten horrek behar besteko justifikazioa du, lanpostu-osagarrian eragiten duten faktore guztiei buruzkoa.

Azaldutakoan oinarriturik eta kontuan izanda Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeko 119. eta 88.6. artikuluek xedatzen dutena, baita aipatutako txosten juridikoaren arrazoiak ere, haren edukiak osatzen baitu erabaki honen arrazoitzea,

aho batez ERABAKITZEN DA:

1. Ezestea XXXk 2021eko plantilla organikoaren behin betiko onespeneraren aurka jarritako berraztertze errekurtsoa, azaldutako arrazoiengatik, aipatutako txostenean garatzen direnak.

2. Erabaki hau jakinaraztea errekurtsogileari, aipatutako txosten juridikoaren kopiaekin batera.

5. OIHAN ENKANTEA NAFARROAKO ONURA PUBLIKOKO MENDIEN KATALOGOKO 638 ETA 639 ZENBAKIKO MENDI KOMUNALETAN, "ARRANOKO HARRIA" ETA BESTE PARAJE BATZUK. 1. LOTEAREN BEHIN BETIKO ESLEIPENA.

Ikusirik:

- Nafarroako Onura Publikoko Mendiaren Katalogoko 638 eta 639 zenbakietako men-

dietan oihan-aprobetxamendu hau egiteko espedientea:

* 1 LOTEA.

- Parajeak, Arranoko Harria, Arregi, Kaprio, Kanpamento, Sta. Barbara, Uslaka.
- Espezieak, radiata pinua (Insignis).
- Ondoak, 2.860.
- Zuraren bolumena, 915,64 m³.
- Egur txiki/peia bolumena, 798,35 m³.
- Bolumena guztira, 1.713,98 m³.
- Balorazioa: 27.681,02 €.
- 3. enkantea, % 20ko beherapenarekin. Lizitazioaren oinarrizko prezioa, 22.144,82 €.
- Udalak, 2020ko maiatzaren 27ko Osoko Bilkuran, erabaki zuela salgai jartzea oihan lotearen aprobetxamendua, gutun-azal itxiaren bidezko enkante irekian.

- Enkantea 2 aldiz hutsik geratu ondoren, hirugarrenean 1 izan zela enkanterako onartutako enpresa: Embalajes Martinez, S.L.

- 2021eko urtarrilaren 25eko Kontratazio Mahaiaren akta, zeinean erabaki baitzen oihan lotea behin-behingo ez esleitzea aipatutako enpresari.

- Sesta helbururako jarritako epean ez zela proposamenik aurkeztu.

Kontuan izanik enpresak aurkeztu dituela baldintza administratiboen pleguaren 10. puntuan eskatzen diren agiriak,

aho batez ERABAKITZEN DA:

1. Aipatutako oihan lotea behin betiko esleitzea Embalajes Martinez, S.L. enpresari, 22.501,00 eurotan, gehi BEZa. Esleipen hau agiri hauen mende dago:

- Udalak onetsitako baldintza ekonomiko-administratiboen plegua eta Nafarroako Gobernuaren Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren Baso eta Ehiza Zerbitzuaren baldintza tekniko partikularrak.

- *Fusarium circinatum* ondoak sortutako gaixotasunaren aurkako borrokari buruzko Baso eta Ehiza Zerbitzuaren jakinarazpeneko zehaztapenak, izurrite hori 82 h rodalean hauteman baita (Kaprioko Hegia parajea).

2. Enpresa adjudikaziodunari jakinaraztea baldintza ekonomiko-administratiboen pleguko 5. eta 11. puntuak ezartzen dituzten betebeharrak konplitu behar dituela: ordainketaren bermea eta ordainketa.

3. Erabaki hau jakinaraztea enpresa adjudikaziodunari eta Baso eta Ehiza Zerbitzuari.

6. KATASTROKO 4. POLIGONOKO 17. PARTZELAREN GAINEAN ERAIKITAKO BORDA UDALAREN ONDARERA LEHENERATZEA. ESPEDIENTEA HASI.

Aurrekari hauek ikusita:

- 1984ko martxoaren 5eko Udalbatzaren osoko bilkuran erabaki zen XXX jaunari obra

lizentzia ematea Ibardin inguruko herri-lurrean zaldientzako borda eraikitzeko, betebeharrak: obra lizentziaren tasak eta industria-jardueraren ondorioz herri-lurra okupatzeari dagokion kanona ordaintzea. Borda indarrean den Katastroko 4. poligonoko 17. partzelan dago, baina eraikina ez dago altan emanda eta hiri-lurzoruaren barruan dago egun. Udal honetan dauden datuetan ez da agertzen interesdunari inolako zenbatekorik igorri zaionik komunala okupatzeagatiko kanon gisa, ezta aprobetxamendua luzatzeko eskaerarik ere.

- 1984ko maiatzaren 7an, hau ere osoko bilkuran, baimena eman zitzaion Daguerre jaunari "Ibardinen eraikitzen ari den aziendentzako bordaren ondoan eta haien zaintzarako" dagoen erreka ura hartzeko, obra lizentziagatiko tasak ordaintzeko eta 1928ko Nafarroako Udal Administrazioarako Erregelamenduaren 337. artikuluko espedientea formalizatzeko betebeharrarekin (herri-lurren okupazioa eta ondare-uren emakida).

- 1989ko urtarrilaren 10ean, XXXk, XXX jaunaren emazteak, Ibardingo *Arragoa* parajearen lursail komunaleko lurzati bat aprobetxatzeko baimena eskatu zuen. Urte batzuk geroago (2014), haren eskaerari erantzunez, baja eman zitzaion 4. poligonoko 17. partzelan (borda eraiki zen partzela) zegoen komunaleko 4.250 metro koadroko aprobetxamenduari, 2014ko abenduaren 15eko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez.

- 1988an, Berako herri-lurretako ondasunen administrazioa, erabilera, babesa eta aprobetxamendua arautzen dituen Ordenantza onartu zen. Ordenantza horren IV. kapituluan, herri-lurretan aziendak gordetzeko bordak arautzen dira. Ordenantza horrek (gaur egun Berako herri-lurren aprobetxamenduak arautzen dituen udal ordenantzak indargabetua) honako hau ezartzen zuen herri-lurren gainean lehendik zeuden bordetarako (bere garaian eraikitzeko baimena lortu zutenak): onuradunak 12 urtean behin eskatu behar du gozamina berritzea eta Udalak berretsi behar du; eraikin horien metro koadroko urteko kanona, Udalak finkatuko duena. Baldintza horiek ezartzen dira ere indarrean dagoen Ordenantza berrian.

- Egiaztatu denez, XXX jaunak ez ditu bete berritzeari dagokionez adierazitako betebeharrak, ez zaio nahitaezko kanona igorri ere, eta borda erabiltzen ez duelako seinale nabarmenak daude; ondorioz, 2021eko otsailaren 9ko Alkatetzaren probidentziaren bidez, Katastroko 4. poligonoko 17. partzelaren gainean eraikitako borda Udalaren ondarera itzultzeko espedientea hasia proposatu zen, honako baldintza hauek ez betetzeagatik: nahitaezko berritzea ez egitea; kanonik eza; eraiki zen lurzorua kalifikazio juridikoaren aldaketa.

- Idazkariak txosten juridikoa eman du 2021eko otsailaren 10ean.

Azaldutakoa oinarri hartuta, eta aplikatu beharreko araudian ezarritakoa kontuan hartuta (Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen 280/1990 Foru Dekretua, Berako herri-lurren aprobetxamenduak arautzen dituen udal ordenantza, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea),

aho batez ERABAKITZEN DA:

1. Katastroko 4. poligonoko 17. partzelaren gainean eraikitako borda Udalaren ondarera leheneratzeko espedientea hasia, honako baldintza hauek ez betetzeagatik: nahitaezko berritzea ez egitea; kanonik eza; eraiki zen lurzorua kalifikazio juridikoaren

aldaketa.

2. Erabaki hau jakinaraztea XXX jaunari, eta 15 egun balioduneko epea ematea alegazioak aurkezteko. Izapide hutsa denez, ezin da errekurtsorik jarri haren aurka.

Julen Errandonea bileratik atera da.

7. BORTZIRIETAKO UDALETAN BERDINTASUN ZERBITZUA EMATEKO HITZARMENA.

Alkateak azaldu du Bortziritako Udalek Berdintasun Zerbitzua emanen dutela 2021etik aitzinerako ekitaldietan, Igantziko Udalak kontratatuko duen Berdintasun Teknikariaren bidez, Udal bakoitzak ezartzen dituen programa eta jarraibideen arabera eta Nafarroako Gobernuak Berdintasunerako Institutuak ezartzen duenaren arabera. Zerbitzu amankomun hori hitzarmen baten bidez arautuko da eta hitzarmenaren xehetasunak azaldu egin ditu.

Jarraian, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 70. artikulua xedatzen duenarekin bat etorritik,

aho batez ERABAKITZEN DA:

1. Bortziritako Udaletan Berdintasun Zerbitzua emateko hitzarmenaren testua onestea eta alkateari ematea agiria sinatzeko ahalmena.

2. Erabaki hau jakinaraztea Igantziko Udalarari.

8. MUGA-PASABIDEEN HESTEARI BURUZ.

Alkateak irakurri eta gero, mozio hau ONESTEN DA **aho batez:**

Pirinio Atlantikoetako prefetak Nafarroa Garaia eta Nafarroa Beherearen eta Lapurdiren arteko bederatzi muga pasabide hetsi ditu, horren arrazoia izanik "Terrorismoaren aurkako borroka".

Egun batetik bertara egunerokoa mugaz gaindi egiten duten herritarrek beren harat honata gogorki baldintzaturik ikusi dute, bai lan arloan, bizitza sozialesan, zerbitzuen eskurapenean, e.a.

Aitzinetik ere horrelakoak bizi izan ditugu, iazko lehenengo konfinamendu aldian edo Miarritzeko G7aren biltzarra zela eta.

Estatuen gainetik eguneroko bizitza egiteko lurralde eremu historikoa hedatzen da mugaren bi aldeetatik, herritarrek ohiko bizimoduarekin eraiki dutena elkarbanatzen duten kulturaren bidez, espazio sozial bizi sortuz, Madriletik eta Parisetik urrun.

Horregatik, gure lurraldearen barneko bizitza baldintzatu eta gelditzeko Frantziako eta Espainiako estatuak duten ahalmena salagarria da eta horretan gehiegikeriaz eta bidegabeki ibiltzea ere bai, azkeneko aldian ikusten ari garen bezala.

Halaber, horrelako erabakiak kinka larrian uzten dituzte Europar asmatutako euro eskualdeak. Gure kasuan Akitania, Euskal Autonomi Elkartea eta Nafarroa. Paperean elkargunea baina errealitatean inolako eraginkortasunik gabe, horrelako erabakiak ekiditeko.

Horregatik, ADOSTEN DUGU:

- Muga pasabideak hestea publikoki salatzea.
- Pirinio Atlantikoetako prefetari eskatzea hetsitako mugako pasabideak lehenbailehen irekitzea.
- Euro eskualdeak indar egin dezan horrelako erabaki kaltegarriak ekiditeko.

9. HONDAKIN ORGANIKOA BILTZEKO SISTEMA MISTOA EZARTZEA.

Alkateak azaldu du hondakin organikoaren bilketaren nondik norakoa Beran:

- Beran hondakin organikoaren %27 bakarrik bereizten da (apuntatua dagoen jende kopuruaren arabera). 2012 geroztik auzo-konpostaren hautua egin zen eta hori izan da orain arte jarraitutako sistema. Bortzirietako bertze herrietan %50 inguru bereizten da. Maila horretara iritsi behar ginateke aurten, aurrera begira %70eko helburuari eusteko.

- Berako herrigunean orain arte 6 konpost-gune egon dira (3 konpost-etxola -Agerran, Eztegaran, Kanttonberrin-, eta 3 konpost-ontzi -Zubizabalean, Iturlandetan, Matzadan-) (Legarbideakoa eta Itzeakoa kendu ziren arrazoi desberdinengatik).

- Momentu honetan sistema mistoaren hautua egiten dugu. Beran eredu mistoa segituko dugu, egun dauden konpostagailuekin (konpost-etxolak eta auzo konpost-ontziak) jarraituko da eta hori osatuko da kontenedore marroiekin. Izan ere, etxolekin hondakin organikoaren bilketaren helburua lortzeko (%50a) etxola kopurua bikoiztu beharko genuke, eta hori ezinezkoa da, toki faltagatik eta mantenimendu beharragatik.

- Sistema mistoak bi abantaila ditu gure ustez: etxeko konpostarekin jarraitzeko aukera izatea, eta, bide batez, bilketa igotzeko bidea jartzea. Dauden 6 konpost-guneekin segituko genuke, eta kontenedore marroiak jarriko lirатеke ere, berdeen ondoan. 30 bat kontenedore marroi jarriko lirатеke herri osoan, tamainu desberdinekoak. Berdeak, berriz, zerbait murriztuko lirатеke (3tik 2ra proportzioan)

- Informazio kanpaina egingen da, etxez etxe joanda, soporte grafiko egokia diseinatuz, eta kubo marroiak banatzen. Kanpaina honetan hondakin organikoa biltzeko bi sistemen ezaugarriak azalduko dira, erabiltzaile bakoitzak bere aukera egiteko.

Ondoren, **aho batez ERABAKITZEN DA:**

1. Herrian hondakin organikoa biltzeko sistema mistoa ezartzea. Bosgarren kontenedorea jarri eta auzo konposta egiteko lekuak egokituko dira.

2. Bortzirietako Zabor Mankomunitateari eskatzea sistema honen antolaketa kudeatzen hasteko.

10. BANDOAK ETA ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Honako bando eta Alkatezaren ebazpen hauen jakinaren gainean geratu dira:

- Bandoak: B2/2021 eta B3/2021 zenbakidunak.

- Ebazpenak: 289 eta 290/2020 (2020/12/31), eta 1/2021 zenbakiko Ebazpenetik (2021/01/07) 32/2021 zenbakiko Ebazpenera arte (2021/02/12).

11. ESKAERAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEEN KONTROLA.

Ez dira izan.

Beste aztergairik izan gabe, 20:45ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

O.E. ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña.

IDAZKARIA,
Miguel J. Belarra Tellechea.